

PuLunPe

149 Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Olerkia

Topa dezagun eroen alde

“Topa dezagun eroen alde,
moldatzen ez diren alde,
errebeldeen alde, zalabartatsuen alde,
datorrena jasaten ez dutenen alde,
ezarritakoarekin bat ez datozenen alde,
mundua modu desberdin batean ikusten dutenen alde,
arauak gustuko ez dituztenen alde...”

Haiei buruz hitz egin dezakezu, arbuiaitu,
haiek aipatu, arbuiaitu,
laudatu erlo iraindu,
baina ez dezakegu ez ikusiarena egin.

Gauzak aldatzen dituztelako,
aizartea aurrera eramaten dutelako.
Batzuek eroak direla pentsatzen dute,
guk emakumeok, berriz, talentua ikusten dugu.

Zeren bere burua mundua aldatzeko
gaitzat hartzeko bezain eroak diren
emakumeak baitira,

Mundua aldatzen dutenak”

JACK KEROUACKEN BERTSOTIK ITZULIA



Sara Quesada eta Ana Ezkurra,
Urritzan Pulunperen banatzaileak

Elkarrekin egiten dute banaketa Urritzan. Sara Mugertza etxean bizi da, eta Imozko Udaleko administraria da, duela 7 urtetik hona. Ana, ordea, Arkupen bizi da, eta Ultzamako Maier enpresan aritu da azken 12 urteetan. Auzetxeko Antonia Etxarri alkate ohiari hartu zioten Pulunpe banatzeko txanda joan zen udan.

Duela gutxi hasi zineten Pulunperen banaketan.

SARA QUESADA: 2012ko udan joan nintzen Urritzara bizitzera. Aizarotzen bizi nintzen lehenago, eta bertan banaketa egiten nuen. Antonia Etxarri alkate zenak egiten zuen banaketa Urritzan, eta nik hartu nion txanda berak hala eskatuta. Haurrak izan nituen eta Ana laguntzen hasi zitzaidan. Bera bakarrik egon da denbora batez, eta orain biak hasi gara.

Zu Ana ez zara Urritzakoa ezta?

ANA EZKURRA: Ez, Iruñekoa naiz, baina Igoan bizitu naiz beti, osaba-izeben etxean. Aizarotzen ere urte batez bizitu nintzen, eta gero Urritzara, jada lau urte daramatzagu bertan.

Ibilbide bera egin duzue orduan?

A.E.: Bai, Iruñetik Basaburura eta hortik Imotza, Urritzara. Nik beti esaten dut Igoakoa naizela, askotan joaten nintzen ttikitan Igoara.

Haurrak dituzue biek, eta Sara zuk Ttikiena haur eskolan haletako bat. Saski baten zozketa egin zenuten Guraso Elkartek, zeinek irabazi du?

S.Q.: Bai, bat Ttikienan eta bestea Jauntsarasko eskolan. Ttikienako saskia haur eskolako Lata-

sako ume baten amonari egokitu zaio, ez dakigu zein amonari, bat iruindarra baita eta bestea Bartzelonakoa. Beraz posiblea da Bartzelonaraino joan izana.

Zuk Ana biak Jauntsaratsen.

A.E.: Bai, 12 eta 10 urte dituzte. Zaharrenak azken urtea dauka Jauntsaratsen, heldu den urtean Larraintzarko ikastetxera doa.

Nola dago euskararen egoera Urritzan?

A.E.: Egia esateko, gaizki. Jende edadetuak bazekien euskaraz, baina ez zuen ohiturarik egiteko, beti erdaraz aritzen da jendea. Kanpotik joan garenok hasi gara euskaraz egiten, haurrek ere egiten dute, eta beraz bultzada bat da.

Noiz ikasi zenuten euskaraz?

S.Q.: Ni euskaldun berria naiz. Gurasoek ez zekiten euskaraz, baina 3 urterekin eskolan euskaraz ikasten hasi nintzen. Nire bikoteak guraso euskaldunak ditu, Urritzakoa da, baina berari erdara transmititu zioten. Autobideak eragin kaltegarria izan zuen euskararengan.

A.E.: Ni euskaldun zaharra naiz. Bi gurasoak Igoakoak ditut, eta etxean euskaraz aritzen ginen.

**PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO
ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA**

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

AZALA: Amaia Arano

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016KO OTSAILAREN 4AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

HORI

Erakusketak

Taupada sendoa,birtzaren soina,orain gure barnean era sakratu baitan taupatu den duera..... itakuna, itakuna, kumuna, itakuna, itakun, itakun, itakun, itakun.....



Kultura kulturek antarktas gaitakoa izateko? Kulturak, Haurak, iruzurak... DUTZ-CHAKAZU-GATZ-CHERIN
Hizetako lehenengo AIZURTEETAN hitzen gara erretzeko 1700etan gozatu omen. **Anima zaiten!**
Email bidez informazioa jaso dezakezu: **kulturamugil@gmail.com**

¿Te gustaría organizar los viernes culturales? Conciertos, charlas, teatro... ¡VEN A LA COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN!
Reuniremos los primeros MIÉRcoles de cada mes a las 17:00. **Animete!**

ULTZANUETA

Ultzazueta zerbitzu mankomunitatea da,
2011n Ultzamako, Anueko eta Odietako udalek
eratuia. Helburu nagusia du eskualdeko uraren ziklo
osoa kudeatzeko.



Eğilimler:

- Mantentze-lanak
- Edateko uraren arazketa
- Egungo sareak zabaltze/
- Kontagailuen irakurketa/
- Fakturak

**ONDO PASA ETA
GUTXI GASTA!**



12

HELDUENTZAKO IPUIN KONTALARIA

MUJER SALVAJE Maider Galarza

Clarissa Pinkola Estés-en hitzeetan bi hitz hauek, emakume eta basatia, emakumezkoen psiké sakoneko atea jartzeko ahalmena dute. Pasabide bat irekitzeko baliu duten hitzak dira. Emakume ororen senak, edotei kulturatik etorritako era, ulertzen dituen hitzak.



19

LARRAINTZAR

"INVISIBLES" DOKUMENTALA

Bost istorioetan banatutako dokumental honek Lurran bizi diren zorituari buruzko ahotza emateko du helburua. Bost zutendariak egindako dokumentala.



• **"Cartas a Nora"** (Covarr) trata sobre las chagas, una enfermedad infecciosa que afecta a millones de pobres en Hispanoamérica. • **"Crímenes invisibles"** (Wenders) saca a la luz la violencia sexual que padecen las mujeres en el Congo. • **"Buenas noches, Ouma"** (León de Aranoa) trata la dramática situación de miles de niños en Uganda. • **"El sueño de Blanca"** (Barroso) se refiere a los problemas con que tropieza la población de la República Dominicana cuando se trata de salir del país. • **"La voz de las piedras"** (Conquera) plantea la grave situación que viven los desplazados en Colombia debido a la guerra entre el ejército y la guerrilla.

26

LARRAINTZAR

KONTZERTUA

“ Abestiak hitzik gabe eta hitzekin”
Pianista: Rinaldo Zhok
Soprano: Edelweiss Aler



Larrentzarko eskolaren 50. urterako dala eta argazki erakusketari buruzko nahi da azken 50 urtekoak argazkiekin.

Pero zelestari de 10 aniversario de la escuela de Larrentzarko, se quiere organizar una exposición de fotografías de los últimos 50 años.

ARGAZKIAK ERAKUSTE MODURAK:

- 1. lurhunkaizak@gmail.com helbidera bidali.
- 2. Urdierreko gastele 9:30ak eta 14:30ak bitartean ekoiztu kopiatu buruzko dala.

OTROZ TRAZA LAS FOTOGRAFÍAS:

- 1. Mandatu lurhunkaizak@gmail.com.
- 2. Se harenen uko copia en el Ayuntamiento de 9:30 a 14:30.

LARRAINTZAKO ESKOLAK
LA ESCUELA DE LARRAINTZAR
50 URTE
AÑOS



PARTE HARTU ETA EKARRI
ZURE ARGAZKIAKI
¡PARTICIPA Y TRAE TUS
FOTOGRAFÍAS!

AZKEN EGUNA: Otsailak 29 / ULTIMO DÍA: 29 de febrero

AMETZAREN II ARGAZKI LEHIAKETA
BADATOR!
SARI ITZELAK!
PRESTA ZAITEZ
ATERA KAMERA KALERA!

IKUSI BIDEOA AMETZA.EUS
WEBGUNEAN!

Santurbeko hiru langile sozialistak

1905. urteko maiatzaren lehenengo egunetan gaude. Santurbeko baselizaren konpontze lanak bukatzen ari dira korrika eta presaka, “25ean erromeria egin behar delako”, badakizue nolakoak diren obrak, “jainkoa lagun”. Odietako baseliza honen korroa bukatzen ari direla, hiru langilek haien marka utzi dute: elizaren kontra doazen bi egunkaritan eskuz idatzi eta gogorazki dute lan hori “hiru langile sozialistak” egin dutela eta egunkariak egurren artean ezkutatu dituzte.

111 urte geroago, baseliza herriak berreskuratu ondoren, ultzamar langile batzuek egunkari zahar horiek aurkitu zituzte eraikina konpontzen ari ziren bitartean.

Odietako bailarak Santurbeko baselizaren jabetza berreskuratu zuen duela pare bat urte. Konponketa lan handiak egin behar zirenez, Gelbentzuko Geltzu enpresako igeltseroak lanean aritu dira urritik hona. Eraikinaren atzeko aldean egurrezko solairua dago. Berritze lanak egiten ari zirela Auzako Joseba Berasainek solairuaren bi langet edo habe artean, “La Voz del Trabajo” eta “El Porvenir Navarro” egunkariak aurkitu zituen, 1905. urteko maiatzekoak. “Oso ongi gordeta zeudela ikusteak harritu ninduen” esan digu Josebak. Zenbait galdera airean uzten ditu aurkikuntza honek eta guk hemen planteatzen ditugu.




Joseba Berasain, egunkariak aurkitu zituzten lekuan

NORK?

Zein izango ziren hiru langile sozialista horiek? Bagenekien 1905. urte aldera Santurbe berritu zutela, eta hala konfirmatu digu “Diario de Navarra” egunkariaren hemerrotekak. Elizak gordetzen dituen paperetan begiratuta, aurkitu genituen obra horiek egiteko ordaindu ziren diruak, eta bertan, batez ere, hiru izen: Manuel Cilveti, Jacinto Elizalde eta José Aranburu.

Banatzen den diruaren arabera, pentsa daiteke Aranburu hau kontratista zela, berak eraman baitzuen diru gehiena. Jacinto Elizalde, Saldias aldeko langilea omen zen eta haren oinordeak eskualdean ezagunak izan dira, obrak egin baitzituzten. Manuel Cilveti Eugui, aldiz, Ziaurizen



1905eko maiatzaren 20ko Diario de Navarraren zatia

bizi zen Dominica Oihanbururekin eta zurgina zen ogibidez. Izan liteke Cilveti hau izatea egunkariak ezkutatu zituena, baina ezin izan dugu jarraitu bere familiaren arrastorik, beraien etxea, herrian “hirugarrena” zena, desagertu baitzen.

Logikoena, kanpotik etorritako eta paper “ofizialean” agertzen ez zen langileren bat izatea gure “idazlea”. Logikoena, diogu, kanpotarrak izatea, garai horietan sozialismoa eta liberalismoa oso eskasak baitziren orokorrean Nafarroan, eta are eskasagoa, herri txikietan. Halere, ezin konfirmatu ez bata ez bestea...

NOIZ?

Santurbeko eraikina oso zaharra omen da, ezin jakin noiztik dagoen hor eta ezin jakin ere noiztik ospatzen den erromeria. Gogora dezagun bere garaietan Nafarroako jendetsuenetarikoa zela. Badakigu, behintzat, baselizan ospatu zela erromeria 1905eko maiatzaren 25an. Festa handia egin zen egun horretan, Iruñeko abesbatza eta guzti. Badakigu ere obra horiek ordaindu zirela 1904-08 urteetan, pentsa daiteke, beraz, obra horiek egin zirela. Bestela nola ordainduko...

Halere, 2016. urtean egindako obretan beste sorpresa bat aurkitu zuten lanean ari zirela. Eraikinaren barneko leiho batean, harrian markaturik, zaharberritze obren datak. Argazkian argi ikusten ez bada ere, 1904. urteko maiatzaren 2an hasi ziren lanean eta irailean bukatu. Erromeria baino

aste pare bat lehenago obrak egiten hasi? Pentsa daiteke urte horretan ez zela erromeriarik egon, beraz.



Baselizan aurkitutako idatzia

Irailean igeltsero lanak bukatu zituzten, baina zurgin lanak hurrengo urteko inaugurazioa baino egun batzuk lehentxeago bukatuko zituzten, egunkariak igeltsuzko kapa baten atzean baitzeuden ezkutaturik. Arrazoi horregatik oso ongi gorde dira ehun urte baino gehiagoz.

Zenbait kontu baldin badakigu ere, asko da ez dakiguna... oraindik.

ZER?

Aspaldidanik langileek haien lanak markatzen dituzte, modu batera edo bestera. Erdi Arotik hona, elizetan lan egiten zuten langileek harriak markatzen zituzten, batez ere lan hori kobratzeko. Poltsikoa betetzeko baino, beste batzuek haien lan “artistikoa” ezagutarazteko erabili izan dute “marka pertsonala”, eliza eta eraikinen kasuetan, harria non jarri jakiteko erabiltzen ziren markak.

Eta beste kasu batzuetan helburu mistikoak edota sinbolo ezkutatuak sartzen ziren lanetan, patroia iraintzeko helburuarekin, askotan.

ZERGATIK?

XIX. mendearen hasiera oso garai mugituak ziren politikoki. Langile mugimenduak, guda karlistak eta industrializazioa gizartean aldaketa handiak ekartzen ari ziren.

Garai horietako Nafarroa, aldiz, atzerakoia zen orokorrean eta oso erlijiosoa. 1900. urtean Iruñeko apezpikuak “El Porvenir Navarro” egunkariko zuzendaria zen Basilio Lacort kazetaria eskumikatu zuen, “haren hitz antiklerikalak” zirela-eta. Zuzendaria kristautasunetik kanpo uzteaz gain, egunkari horren langile, banatzaile, irakurle... guztiak ere “in genera” kanporatu zituzten.

Laburbilduz, egunkari horrekin zerikusia zuen edonor elizaren kanpo geratu zen. 1905. urtean, “El Porvenir” egunkaria ez zen ofizialki existitzen, baina banatzen zen. Oso ale gutxi gordetzen dira, Nafarroako Artxiboan dozena erdi bat, besterik ez.

“La Voz del Trabajo” egunkaria Donostiatik zetorren (gerta liteke langileak José Aranburu kon-

tratistarekin batera Gipuzkoatik etortzea) eta alderdi sozialistaren eta UGT sindikatuaren “ahotsa” izan zen geroago. Pablo Iglesias fundaziotik esan digutenez, haiek duten alerik berriena 1930. hamarkadakoa da. Haien datuen arabera, orain arteko alerik zaharrena Berkeleyko Unibertsitatean gordetzen da, Estatu Batuetan, Kalifornian eta 1920 ingurukoa da.



Historia “berriaren” aurkikuntza bitxia da hau, aintzat hartzen dakienarentzat, balio handikoa. “Pozik gaude aurkikuntzarekin”, dio Alberto Urdaniz Odietako alkateak, “egunkari hauen kopia baselizan jarriko dugu, oroigarri gisa”.


BUKAERA

Baliteke inoiz ez jakitea nork eta zergatik ezkutatu zuten egunkari horiek Santurben.

Baliteke Aranburu nagusiarekin lan-gatazkaren bat izatea eta mendeku moduan halako ekintza egitea. Klase-borrokan txertatutako ekintza izan liteke: harro zeuden haien militantzia sozialistaz eta, arriskutsua izan baliteke ere, haien “marka” utzi zuten.

Beste aukera bat izan liteke halako ekintza atea izatea, heretikoa: eliza batean debekaturiko egunkari bat ezkutatzea, antiklerikala, konjuru baten modura. Nor daki.

Benetako arrazoiak ez ditugu inoiz jakingo. Aipatzen ahal duguna da hiru langilek hilabeteak lanean pasa zituztela mendiaren lasaitasunean eta 111 urte geroago beste hiru langilek haien marka aurkitu dutela, aurrekoen lana betirako historian mantentzeko.



Gorka Etxeberria eta Patxi Urrutia, **azkenean** libre



Ez dute espetxera joan beharko. 10 urteko espetxe zigorra eskatu zuen fiskaltzak 04/08 sumarioan epaituriko 35 kiderentzat, ANV eta EHAK sortu eta Batasunaren mahai nazionalako kide izateagatik. Talde armatuko kide izatea egozten zien denei.

Epaiketa amaitu aurretik lortu zuten akordioa auziperatuek eta fiskaltzak. Inor ez da espetxera joanen; auzipetuek akusazioak onartu dituzte, aitortuz legeriaren aurka jardun zutela. Halaber, “indarkeriazko jarduera ororen” aurkako konpromisoa azaldu dute, eta espero dute aitortza horrek biktimen oinazearen “erreparaziorako” balio izatea.

AVTk eta Dignidad y Justicia herri akusazioek onartu dute zigorrak murriztea, biktimei erreparazioa eman nahi izateagatik. Orotara, urte eta erdi, eta urte eta 8 hilabeteko zigorrak adostu dituzte.

Amaitu da amesgaiztoa

2007tik hona hainbat buruhauste eman dizkie prozesu honek Aizarozko Gorka Etxeberria, Ultzaman lanean ibili zen Patxi Urrutia eta gainerakoei. Ia hamar urte igaro dira Seguran atxilotu zituztenetik; Gorkak 2 urte eta 7 hilabete eman zituen preso, eta Patxik urtebete eta 10 hilabete.

Bioenergia **plantaren** etorkizuna, airean



Osoko bilkuraren erabaki honen aurrean bankuek eta enpresak berak alegazioak aurkeztu zituzten eta hori oraindik argitzeke dago. Ildo berean Berruezo administratzaile eta Udalaren artean eztabaida dago plantaren jabetza dela eta. Nafarroako Kontseilua deitutako epaitegiak du orain erabakia hartzearen ardura.

Iraizotzen kokatua dagoen planta honen proiektuaren kudeaketa alde ilunak sortu zituen hasiera-hasieratik. Diru-laguntzen kudeaketa, Levenger enpresaren partaidetza eta erantzukizuna eta proiektuak zituen konexio politikoak zalantza handiak sortu zituen eta gertatu dena ikusita, Nafarroako Comptos Ganberak bere gain hartu du kontuak argitzeko erabakia. Parlamentuak onartu zuen kontu hau ikertzea eta ikerketa egingo dute, nahiz eta oraindik Ultzamatik pasa ez.

Egoera guzti honen aurrean, beti bezala, ahulenak galtzaile. Extraofizialki jakin ahal izan dugunez, abeltzainen kezka nagusia baltsak eta haien kudeaketa dira. Horretaz gain, esperoan daude ea zer egiten ahal duten, kontuan izanda Nafarroako Kontseilu horrek oraindik hurrengo pausoa eman ez duela.

Duela bost urte eskas Ultzamako bailararendako proiektu salbatzaile gisa aurkeztu zena amets gaizto izateko geroz eta hurbi-lago dugu.

Azken asteetan bi adar nagusi ditu kasuak: alde batetik epaitegiatako bidea eta bestetik aurrekoen kudeaketaren zalantzen ikerketa. Bioenergia plantaren “bahiketa” urtearekin batera bukatu zen eta konkurtso-administratzailearen eskura pasa zen kudeaketa teorikoa, planta hertsu baita.

Larraitzarko eskolaren 50. urteurrenaren ekimenen azalpena



Proposamenak:

Bideo grabazioa, argazki erakusketa, kamisetak atara, zuhaitzak landatu, Lanzko ihotearekin zerbait antolatu, ostiral kulturaletan ikaskuntzari buruzko ekintzak egin eta beste batzuk. Ekintza guztien amaiera ekainaren 11n egingen den ekitaldi jendetsua izanen da. Gonbidatuak zaudete ekintza guztietan parte-hartzera!

Ekintza guztietan zuen laguntza eskertuko badute ere, badira ekimen bi zuen laguntzarik gabe ezingo dituztenak aurrera eramanez, horregatik kontzejuen eta jendearen laguntza zuzena eskatzen dute:

Zuhaitz edo landareen landaketan

Herri edo kontzeju bakoitzean zuhaitz bat landatzea da egitasmoetako bat eta posible izanez gero, guztion artean 50 landatzea, hau da, urte bakoitzeko bat. Hau lortzeko herriei kudeaketa egitea eskatu diete: zuhaitza edo landarea erosi edo menditik lortu, herriko txokobatean landatu, argazkia atara eta bidaltzea. Herritarren laguntzaz, landaketa egunaren inguruan ekintza desberdinak egitera animatu nahi dute jendea (gosaria, kalejira,...) “Zuen laguntzarekin ziur gaude erronka lortuko dugula: 50 urte, 50 zuhaitz!”

Zuhaitzak landatzeko eta argazkia bidaltzeko azken eguna: maiatzaren 1a.

Bideo grabaketa

Lipdub antzeko bideo bat egin nahi da 4. DBHko ikasleek egin duten kantu bat oinarri hartuta eta herri ezberdinetan grabatutako bideo zatiekin osatua. Apirila aldera, aurrez erabakitako hamabi herritan grabatuko da. Herritarrek animatzea, ekintzaren berri ematea, ilusioa eragitea eta posible bada, denon artean bideo parte-hartzailea egitea eskatzen dute.

Edozein zalantza edota iradokizun baduzue deitu 948305353 telefono zenbakira (Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea) eta zonaldeko kultur animatzailearekin hitz egin edo nahiago baduzue idatzi mezu bat ssbultzama.kgarces@infolocal.org edota cplarra@educacion.navarra.es.

Gizarte Zerbitzuetaoek kontzejuei gutun bat bidali zieten eskolaren urteurrenaren dela eta, antolatu behar diren ekimenak azalduz eta parte hartzera jendea animatuz.

Antolakuntzatik onartzen zuten “ezin dugula guk bakarrik hori dena egin eta laguntza” eskatzen zuten, izan ere, “50 urte hauetan jende mordo pasatu da eskolatik eta guztion festa eta ospakizuna” izatea nahi dute. Gutun honen edukiak irakurle guztiendako interesgarriak direnez hemen plazaratzen ditugu:

Kronologia

Urte berriarekin batera, zehaztu dira urteurrenaren ekimenak. Iazko urrian, Ultzamako Udalak Larraitzarko ikastetxean parte hartzen duten bailaretako udal ordezkariak, Sustraiak guraso elkarteak, zuzendaritza taldea, zonaldeko kultur animatzailea... batzar batera deitu zituen. Batzar horretatik ordezkariak bat atara zen, eta azken hilabete hauetan ospakizunak 2016. urte honetan hartuko duen forma diseinatzen aritu dira.

Helburua

50. urteurrenaren ospakizunerako nahikoa arrazoi bada ere, eskualdeko herritarren harremanak sendotu eta gure haur eta gazteek lurralde eta aurreko belaunaldien ezagutza eta historiaren berri izatea dute helburu nagusi proposatutako ekintzek. Gainera, eskola gure gizartearen eraikitze funtsezkoa denez, ahaldundu eta sendotzeko une egokia da, nahi dugun etorkizuneko gizartearen hezteko bitarteko garrantzitsua baita.

Nazioarteko **hezeguneen** eguna, otsailean

Ba al zenekien munduan 1.000 milioi pertsona baino gehiagok bizimodua aurrera ateratzen dutela hezeguneei esker?

Arroza landatu, arrantza, turismoa eta ur banaketarako erabili ohi dira lur hauek. Eredu hauek oso eragin positiboak dituzte ekosistemetarako, baina azkeneko 100 urteetan haien tamaina erdian baino gutxiago geratu dira mundu mailan, askoren

ustez alferrikako lur eremuak izan baitira.

Gure eskualdean Belateko hezegunak ditugu, Nafarroako garrantzitsuenetarikoen artean daudenak.

Otsailean Orgi basokoek txangoak antolatu dituzte nazioarteko egun hori ospatzeko. Haien helburua, besteak beste, landa eremuetan jendeak lan egin ahal izatea da, naturak eskaintzen dizkigun onurak alde batera utzi gabe.

Automobila gasolina
gabe geratu omen zi-
tzaien eta herrian egon

Halakoak gertatzen
direnean, bizilagunek

Goizaldeko lau eta

Duela pare bat urte gertatu zen lapurretaren antzekoa izan da oraingoa; gau bakarrean leku desberdinetara sartzen dira ibilbidea egiten.

Datuak mahai gainean izanda, sindikatu horrek Gobernuari eskatu dio ekonomia politikak egi-terako orduan eskualde desberdinen errealtatea kontuan izan dezan.

OTSAILA



Momentuz Basaburuan Itsason,
Berueten eta Igoan izan direla ba-

Lantzen, iaz, 50 urte bete ziren ihoteen berreskurapenaz. Aurten otsailaren 7an haurren festarekin hasi ziren, eta hurrengo bi egunetan Miel Otxinen istorioa antzestu zuten.



Ttikiena haur-eskolan izena emateko epea zabalik

Otsailean ireki da 2016/2017 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea. Urtez urte zonaldeko haurren hezkuntzan sakondu dute, eta gurean errotzen ari den proiektua da Etxalekuko Ttikiena.



Urte amaieran saski baten zozketa egin zuen guraso elkarteak, haur-eskola diruz laguntzeko helburuarekin. Saria Latasako haur baten amonak irabazi zuen, baina haur-eskola bera ere irabazle atera zen, diru-laguntza horri esker aurrera egiteko aukera baitu.

Ttikiena proiektua

Zortzi urte daramatza Ttikiena haur-eskolak. Basaburuan sortu zen lehenik, gurasoek zu-

ten beharrari erantzunez, eta gurasoek eurek sortua. Gerora, jaiotza tasaren jaitsierarekin, Basaburutik Imotza pasa zen, eta Etxalekun dagoen udaletxeko beheko solairuan dauka egoitza duela bi urtetik hona. Nabarmenezkoa da Imozko zein Basaburuko udalek diruz lagunduta egiten duela aurrera haur-eskolak.

Nahiz eta haur gutxiago egon, Ttikienako guraso elkarteak "haur-txoen eskola" bultzat-

zen jarraitu nahi du, haiek sinisten duten hezkuntza ereduarekin jarraitu eta "zaintza edo haurrak gordetzeari dagokion eskola eredutik aldentzeko".

Haurren gaitasuna garatzea du helburu Ttikienak, "ingurune atsegina eta segurua" lortuz, txikitxoaren "egonkortasun afektiboari, bizipenei eta esperientziari arreta jarritz, hauen garapen integrala lortzeko helburuz".

Guraso elkartearen esanetan, hiru zutabetan oinarritzen dute eskolaren proiektu pedagogikoa: "haurra, familia eta eskola. Eta hiru zutabe hauek, entzuteko, komunikatzeko, alaitasunerako, errespeturako eta ikas-kuntzarako gaitasunak

barne hartzen dituen testuinguruan txertaturik daude."

Imotz, Basaburua eta inguruko gurasoei deia

Orain arteko haur guztiak Imotz eta Basaburukoak dira, baina zonaldeko gainontzeko haurrei ere zabaldu nahi diete eskola, proiektu honetan sinisten dutenei.

Aurrematrikula egiteko epea hasi den honetan, ate-irekiko jardunaldia antolatuko dute datozen egunotan, gurasoei eskola bera erakutsi eta edozein zalantza argitzeko asmoz. Harremanetan jartzeko aupattikiena@gmail.com helbide elektronikoa eta 948503364, Imozko udaletxeko telefonoa ere baduzue.

Gure mus jokalaria onenak!



Hasi da Euskal Herriko mus txapelketa. Urtarrilean zazpi probintzietako herri ugarian jokatu dituzte kanporaketak, eta gurean lau izan dira. Igoa, Iraizotz, Jauntsarats eta Gartzaronen egin dituzte partidak, eta osotara 28 bikote izan ditugu, 56 parte-hartzaile.


Igoan urtarrilaren 9an jokatu zuten herriko ostatuan, eta 13 bikote aritu ziren. Irabazleak Arrarasko Migel Angel Oskotz eta Orokieta Pedro izan ziren. Txapeladunorde Igoako Migel Angel Arregi eta Angel Martija bikotea izan zen. Hirugarren saria Udabera joan zen, Ander Razkin eta Mikel Loidirentzat. Eta laugarren Igoako Tejas eta Eñaut izan ziren.

Lehenengo hirurak Nafarroako finalera pasako dira, eta zalantza da laugarrenak pasako ote diren.

Urtarrilaren 15ean Iraizotzen izan zen kanporaketa, ostatuan. Lau bikote aritu ziren oraingoan, eta Nafarroako finalera irabazleak soilik pasako dira, Imanol Iragi eta Ander Larraioz.

Azkenik, urtarrilaren 23an bi kanporaketa jokatu ziren, Jauntsarats eta Gartzaronen. Azken honetan 7 bikote aritu ziren Toki Alai elkartearen, eta irabazleak iazko berak izan ziren, Eneko Legarra eta Alberto Arangoa. Idoia Ihaben eta Juanra Markez izan ziren bigarrenak, eta hauek ere finalera pasako dira.

Ametza.eus berritua



Edukiek protagonismoa hartu dute Ametza Kultur Elkartearen webgunean. Pulunpen eta Esan Erran irratiaren lantzen ditugun edukiez gain, beste formatu bat eskatzen duten edukia igotzen arituko gara: bideoak, kirol jardueren sailkapenak, elkarrizketa bereziak, albiste zenbait...

Formaz ere aldatu egin da, eta itxura hobea dauka orain, argiagoa eta errazagoa, edonor sartu ahal izateko helburuarekin. Ez kezkatu teknologia berrietan hasiberria

bazara, ametza.eus idatzita sartu eta erraz iritsiko zara edukietara.

Gogoratu Esan Erran internet bidez entzuteko aukera ere baduzuela gure web orrian, edozein lekutatik entzuten ahal duzue, eta zonaldeko egunerokoa jarraitu!

Bertan ere, Pulunpe aldizkaria etxera iritsi baino lehen izanen duzue irakurgai, hilabeteko lehenengo egunetan. Beraz, sarean eta sare sozialetan ere aurkitzen ahal gaituzue!



Irudi batean

Gure Donejakue **bidea** berpizten

Orreagako bidea da ezagunena, jakina. Baina guk ere badugu bidea, askok diotenez ederrenetarikoa, eta Pirinioak gurutzatzeko mendaterik erosoena duena, Belate. Baionatik Iruñera sei etapa eginez iristen dira erromesak, harresitik harresira.



Galtzada erromatarra belateko lepora iristen

Baztanen lekukoa Belate gainean hartzen du Ultzamak, eta izen bereko ibaiaren bidea jarraitzen du Argarekin batu arte, hau da, jaiotzen denetik, "hil" arte. Bideak osotara hainbat erietxe, bi monasterio, santuaren omenezko hainbat basiliza eta beste aterpetxe asko ditu.

Uste baino bide garrantzitsuagoa

Juan Ramon Corpasen hitzetan, "garaian garaiko ohiko gerra-denborak eta lapurretek eragindako krisi latzak salbu, igarobide hau oso erabilia izan zen". Erdi aroan, bidaiari, erromes, merkatori, errege eta armada zenbaitek erabili zuten.



Belateko monasterioa

1378. urtean, Baionako Pedro d'Oriach apezpikuak dio: "milaka gizon galduko lirateke bertako mendi eta basoetan, bereziki udazken eta neguan, Santa Maria ospitaleak ematen duen zerbitzuagatik izan ez balitz".

Nafarroako Comptos ganbarako kontuetan ere,

XIII. mendean komertzio mugimendu handia zegoela aipatzen da, Baionatik Iruñerako bidean.

Belatek pasa zen Nafarroako Alfontso I.a Borrokalari erregea ere 1130. urtean, Baiona setiatu zuenean. Champaña etxeko Teobaldo I.a eta II.a erregeak ere 1238 eta 1264. urteetan Lantzik igaro ziren Pirinioak Belatek gurutzatzeko.

Gure biztanleen inplikazioa ere izan zuen garai batean. Hainbat dokumentutan aipatzen da Jurdana de Lanç-en izena Belateko monasterioaren inguruan, eta Alkozko beste emakume batena diru emaile gisa. Anueko bailarako kofradiak Belaten egiten zituen bere bilerak Ultzamako bailarako kofradiarekin, baina 1587. urtean Olaguen egitea erabaki zuen erosotasunarengatik.

Belaten ere ospatzen zen Ultzamako hamalau herrien erromeria, baina 1793an Frantziako konbentzioko armadak santutegia suntsitu zuenetik Alkotzen egiten da.

Azken urteotako bultzada

Urdazubi eta Baztango Santiago Bidearen Lagun Elkartea 2000. urtean sortu zen, bide hau bultzatzeko asmoz. Frantsesek behartuta izan zen, haiek bide honen garrantzia sinisten baitzuten, eta Nafarroan ez zitzaion behar bezalako garrantzirik ematen.

Bidea ixten zuten sasiak garbitu, udal eta kontzejuetan bidearen garrantzia zabaldu, harri eta ikurren bidez bidea markatu, aterpetxe berriak sortu, gida bat egin... hauexek izan dira elkarte honek egin dituen egitasmo batzuk.



Urdazubi-Baztan Santio Bidearen Lagunen Elkarteko kideak

Luis Mari Ruiz Mendiburu elkarteko kideak dio pozik daudela azken urteotan egindako lanarekin. Udal eta kontzejua konturatzen ari dira bide ga-

rrantzitsua daukatela, eta jende asko ekar dezakeela. Bestalde, zenbait herritako jendearen inplikazioa ere handia izan dela dio, baina oraindik ere orokorragoa izan behar dela bidea osorik bultzatzeko.

Azken urteko aldaketa Lantzo aterpearena izan da. Orain arte Olaguen zuen amaiera Berroetan hasten den etapak. Joan zen urtean Lantzo aterpetxea irekita, geroz eta erromes gehiago geratzen dira bertan, eta hurrengo egunean hartzen dute Iruñerako bidea.



Lantzo aterpetxe berria

ISABEL BALEZTENAK, LANZKO ALKATE ETA ATERPETXEKO ARDURADUNA
Nabaritzen duzue azkenaldian erromes gehiago igarotzen direla Lantzik?

Bai, askoz gehiago, ikaragarria da. Orain arte erromesen igoera xume bat nabaritzen zen urtez urte, geroz eta ezagunagoa egiten baitzen, baina joan zen irailean aterpetxea irekita, asko nabaritu da. Gainera, Olaguen geratu beharrean, Lantzen geratzen dira.

Nongoak izaten dira?

Denetik dago. Askok hemengoak, bidea oso ongi ezagutzen dutenak, eta Orreagak edo kostakoa egina dutenak jada. Baina beste asko urrundik etorriak.

Ze harrera egiten diete herritarrek erromesei?

Lantzen oso ongi hartzen dira erromesak. Lehen ez ziren hemen gelditzen, Lantz igaro eta Olague-ra joaten ziren, baina orain aterpetxean gelditzen dira. Hala ere, lehen aterpetxerik ez zegoenean erromesek behar izaten zuten edozer eskaintzen zieten bizilagunek.

Neguan ere ibiltzen dira erromesak?

Bai, uste baino gehiago. Udan baino gutxiago noski, baina etortzen dira. Urtarrileko elurtean Alacanteko bi pertsona iritsi ziren busti-bustita baina pozik bidearen edertasunagatik.

Bidearen altxorrak

Belatek Ostizta dabil Donejakue bidea gure zonaldean. Hasiera horretan bertan dago bide osoaren altxorrik handiena, Belateko Santa Maria ospitalea. Erromatar galtzadatik iristen da bidea Belateko gainera, hainbat zutarrik markatzen duten bidea jarraituz, erromesa lainopean galdu ez dadin.

Baztandik Ultzamarako aldaketa "Ermitiko lepoa" deituta egiten da, Santiagoko ermita zaharrari erreferentzia eginez. Ultzama ibaiaren sorreratik oso gertu hasten da behearantzko bidea, eta berehala topatzen dugu Belateko Santa Maria ospitale ospetsua.

Iruñeko Katedralaren kontrolpean egona, Erdi Aroan erromesen aterpetxe eta ospitale lanak egin zituen monasterio honek. Erabat berriztatua dago, baina garai batean oso egoera kaxkarrean egon zen.

Belatek beheara pagadi eder batean murgiltzen da erromesa, askoren ustez bidearen zatirik ederrena. Bost kilometro egin ondoren Lantz dugu begi aurrean. Bertan aterpe hartzeko aukera dago Isabel Baleztenak zaintzen duen aterpetxe berrian. Bestela, bidearen bosgarren etapa honek Olaguen du amaiera.

Olaguen ere aterpetxea dago elizaren atzealdean, Araceli Eletak zaintzen duena. Anue bailaran sartzen da honela bidea, eta Leazkue, Burutain eta Etulain zeharkatzen ditu, Ostizta iritsi eta Iruñeko bidea hartzeko. Orreagako bidearekin Arreko trinitatean egiten du bat, Ultzama eta Arga ibaiek bat egiten duten lekuan.

Bide honetara herrialde guztietako erromesak etortzen dira, frantsesak, holandarrek, danimarkarrak, britaniarrak, alemaniarrek, estatubatuarrek edo korearrak esaterako. 200 baino gehiagok egin dute negu honetan jada bide hau.



Donejakue bidea ostiztik ateratzen



Elurrik ez zeruetan

Zeruak idortu dira. Elur gutxi azken urte hauetan. Lehenago bai, elurte ederrak izan dira eta aunitzetan gainera. Esate baterako, elurte famatu baten aztarnak hor gelditu dira jendearen oroimenean: zaharrei hala entzun izan diegu nola jitoak amatxi jan zuten. “**Jitoak amona jan zuten urtia**”, horrela aipatzen zuten urte famatu hura. Nonbait negu latza izan zen! Bai, bai, jatekorik ez eta amona jan zuten hartan!



2016. urtea. Eltzaburuko gaineko aldetik Ultzamako Ibarra

JOXELU

Nonbait esaera hori ongi famatu zen eta Txirrita bertsolariak ere esaldi hori dela eta, hona nolako bertsoa paratu zuen:

*Milla zortzireunean
izan zan kortea,
hemen gertatu zana
negu bat, fuertea;
horma beltzak egiñaz,
luzaro nortea,
berrogei egunean,
gero elurtea:
ijitoak amona
jandako urtea.*

Kontu hori ez izanen mila zortziehunekoa, geroztik ere **majiña** bat elurte egin baitzuen. Beraz, Txirritak bertsoa neurrian sartzeko ez zuen urtea xuxen-xuxen sartzeko aukerarik topatu nonbait, eta XIX. **mendea** aipatzea aski izan zitzaion.

Txirrita 1860. urtean jaioa zen eta bera jaio aurrekoa izan zitekeen baina inola ere ez 1800koa, urte asko atzeratzea iruditzen baitzaigu. Errazagoa da berak ezagututakoa izatea eta nonbait hala dugu irakurria, 1887ko elurtea zela. Beraz, **Txirritak** 16 urte zituenekoa.

HIZTEGIA
AZTARNA: Señalea, indicio.
OROIMENEAN: akordamenean.

Gure oroimenean, azken elurte handia, behar bada, 1985. urtekoa izan liteke, gure alabak urte bat zuenekoa. Urtarrilean izan zen, ia hilabete oso-oso elur eta izotz artean. Jauntsaratsen elurte handia eta izotza egunero, zero azpitik egun eta gau guztiak. Goizaldean 14, 15 gradu zero azpitik, eta eguerdian 10 zero azpitik. Egund argitze batez 19 gradu zero azpitik egin zituen. Marka guztiak hautsi zituen. Egund ederrak, eguzkitsuak, bulegoan sar eta lana gogotsu eta patxadaz egitekoak. Beruete aldera paseo ederrak egiteko aproposak. Egund zorientsuak, alajaina, jitoek pasatu zuten gosarik ez baitzen hemen.

Elurte handi horiek bukatu ote dira? Kontu zaharretara pasa ote dira betiko? Klima aldaketa aipatzen da eta hemengo gutxi ukatzen dute hori. Lehengo elurte eta izotzik behintzat ez dugu izaten honezkeror, nahiz eta iaz asper-asper egiteko moduko negua xitala egin. Nolanahi gisa, hemen behintzat aldaketa ederra ezagutu dugu klima kontuan.

Aurtengo ilbeltzak beltzetik ez du deus izan, bi izotz besterik ez dugu izan eta.

Elurrik ez duela botatzen eta kexu? Zer nahi duzu esatea, hau irakurtzen ari zarenean ariko ahal du jausi ahala, bota ahala, metro erdiko elurte bat ikusi artio. Izan ongi eta ez dadila inor haserretu nire nahi hau azaltzeagatik!

MAJIÑA BAT: Muchos, infinidad (Batuan, makina bat idazten da)
MENDE: gizaldi, siglo.

Igual duk nolanai!

Ultzaman hiru lagunak sortu zuten soziedade bat duela ez hainbeste. Eta soziedade edo elkarte horri **NOLANAHI** jarri zioten izena. Egia osoa esateko, ez dakit nolanahi hala nolanai jarri zioten. Nolanahi gisa, gaurko kontu honetarako ez du axola handirik. Jakina, izenak izana ere askotan berekin omen darama, eta elkarteak porrot egin zuen. Laster bukatu zuen bere bizia. Nolanahi jokatzan dutenak, nolanahinatarrak dira. Ultzamako adiskideok ere garai hartan nolanahinatarrak ote? Geroztik, ikasi ere ikasiko zuten noski.



Nolanahikeria? Zabarkaria, baldarkeria...

Badira historia eta istorio bitxiak gauzak nolanahi egiteagatik, galera ttiki eta handiak ekarri dituztenak.

Ingalaterrako abesti zahar batek hala dio:

*Perra galdu zen iltze baten faltaz
Eta perrarengatik zaldia zen galdu.
Eta zaldiaren erruz, zalduna.*

Eta zaldunaren faltaz, guduka galdu.

Eta guduka bezala, Erresuma zen galdu.

Eta den-dena, iltze bat falta izan zelakoz.

Begira nolako zorigaitza sortu zen perratzaile edo arotz **nolanahitar** batengatik!

Eta XVIII. eta XIX. mendeko ingeles idazle batek honako hau idatzi zuen:

“Ametitzen baduzu hilketa, laster ez diozu garrantzirik emango lapurretari; gero, edaten hasiko zara, eta mezara joateari utziko diozu, eta, azkenean, urbanitate arauak ez dituzu beteko eta nagia bihurtuko zara” (1)

Perraren kontuan gauza ttiki batetik oker handi bat sortzen da. Bigarren honetan, berriz, oker handi batetik oker ttikiago baterako bidea egiten da, baina, oker ttiki hori norberarendako izan daiteke handienetakoa: utzia, nagia, alperra bihurtzea, alegia.

HIZTEGIA
ZALDUNA: Caballero.
GUDUKA: batalla.
ERRESUMA: Reino.
GARRANTZIA: inportantzia.
URBANITATE ARAUA: Reglas de urbanidad. Jendar-

tzea, alegia.

Etzalekun, orain laurogei urte edo, belarretako denboran, **Iturriko** Patxiko sorora joan omen zen goizean goiz, sega hartu eta belar ebakitzera. Eguzkiak berotzen hasi zuenean han agertu omen zitzaion alaba, saski batean gosaria zera-makiola, zuku eta guzti.

Alabak hala esan omen zion:

-Atte, atte, hemen dekarret gosarie! Ze iñaut? Non utziko dut?

-Bot'zan nonai, botz'an hortxe!

Eta bai alabak ere hitza ederki bete, ez zuen ba zanpa! lurrera bota, zukua eta dena galdu zelarrik?

Bai, bai, hitz egin nolanahi, gauzak ez esan xuxen, eta gosaria galdu. Hitz batengatik gosald gabe gelditu zen Patxiko.

Berdin da nolanahi! Berdin dio! Igual duk! **Nolanahitar** ekintzetan, **nolanahitar** hizketan, **nolanahitar** hemen eta han, **nolanahitar** nagusi. Nolanahi gisa, gaur, bukatzeko gauza bat eskatuko dut: Jainkoak libra gaitzala tximistetik eta haize txarretatik eta, batez ere, **nolanahitar** lagun izatetik. Eta guregandik urrun eduki ditzala.

tean nola portatu behar den.
NAGIA: perezoso, alperra.

(1) Joseba Sarrionandia idazle handiaren azken liburuan, “Lapur banden etika eta politika”n datorren itzulpena da.

“XXI. mendearen hasiera hondamendia izan zen musikarendako”

Gor diskoetxearen 25. urteurrena ospatzen ari dira azken hilabete hauetan. Marino Erason bizi da 1987. urtetik eta bere sukaldean lasai eta luze hitz egin dugu musikaren egoeraz, industriaren gainbeheraz eta, baldin badago, euskal musikaren

25 urte bete ditu diskoetxeak. Atzera begira zer ikusten duzu?

Oso zaila da orain balorazioak egitea, batez ere denborarik izan ez dugulako atzera begiratzeko. Oso pozik nago izan dugun ibilbideaz, atera berri dugun 25. urteurrenaren diskoa ikusi eta oso harro gaude, diskoa bikoitza bada ere, beste disko oso bat behar izango genuke nahi genituen abestiak sartzeko. Azken disko honetan talde asko geratu dira kanpoan, batez ere abesti motzak jarri ditugu. Gorren oso harro gaude Zazpi Eskale, Ken Zazpi, Huajalotes, Parabellun, Su Ta Gar, Doctor De-seo, Berri Txarrak Zea Mays eta beste talde batzuk haien hastapenetan laguntzeaz.

Aldaketa asko egon dira azken urteetan musikaren munduan...

Aldaketa izugarria bizi izan dugu. Nire teoriaren arabera, akats asko izan ditugu. Krisi ekonomikoaren aurreko garaia funtsezkoa izan zen. XXI. mendearen lehenengo hamarkada hondamendia izan zen musikarendako. Badakit jende asko ez dela honekin ados egongo, bere garaian ere ez zeuden ados. 2001. urtean edo, “Aho bete doinu” liburua argitaratu zen, eta bertan elkarrizketa mordoa egiten zen musikan sartua dagoen jendeari. Bertan adierazi nuen hamar urtetan ez zela diskoetxerik geratuko eta jendeak “katastrofistatzat” hartu ninduen. Egia esan, motz geratu nintzen esandakoaz.

Zer eragin izan du horrek?

Desagertu zirenen atzean beste zigilu eta diskoetxe batzuk sortu ziren, baina besteak baino askoz ere ahulagoak. Arazoa da aurreko diskoetxe horiei esker zenbait talde “aurrera” atera zirela eta berri hauekin ez dagoela erreleborik, ez dago talde berririk. Eta fenomenoak ez da bakarrik hemengoa, nazioarte mailakoa da. Begira ezazu BBK Live bezalako jaialdi baten kartela eta ikusiko dituzu duela 20 urteko talde antzekoak. Ez dago “jauzia” eman duen talde berririk.

Zer gertatu da?

Akats asko egin ditugu, lehen aipatu bezala. *Creative Commons*-a bitarteko bat da, ez helburu bat (musika lizentzia ez-komertzialak ematea da *Creative Commons*), pirateriaren eragina ere oso kaltegarria izan da, negozio honekin ia-ia bukatu du, eta horren ondorioa da inork ez duela talde berrien alde bere dirua jarri. Talde asko ikusten ditut 10 urte daramatenak “hasiberriak” bezala eta ez dute etorkizunik. Industria oinarri indartsu bat lortu genuenean “amateur” eszenara itzuli gara berriz.

Azalduko gehiago hori?

80. hamarkadatik aurrera oso talde onak sortuz joan ziren eta horien atzean grabazio estudioak, diskoetxeak, soinu ekipoak, “managerak”... Eta bitartekari horiek ez ziren zertan “gaiztoak” izan, gakoa dago zer akordiora ailegatzen zaren zu eta taldearen artean.

Eta orain, zer?

Lan eskerga dago egiteko eta nik ez dut errezeta salbatzailerik: irratiekin arazo handiak daude, euskal musika eta Rap musikaren arteko erlazioa ikusi behar da, gatazka politikoaren bukaerarekin batera aldaketa gertatuko ote? Nor daki.

Mutikotzen. Ardo frexko trago batekin ospatu genuen



Etxalekuko nextato eta muttiko batzuk Plazapeko aska ertzean: Kattalin, Nerea, Maria, Oihana, Pello eta Patxi, haizea baino erneagoak!

Hala, mutiltzen ari ginen. Orduko kontua da gaurko hau. Gaur ere Miel Aotzona dut ekarriko orri honetara. Orduan ere, *Arotzan* Miel o Miel Anjel, bietara deitzen genion, eta gainera *Aotzana*, gure kuadrilan beste Miel bat baikenuen, *Domikeneko* Mieliko edo Miel eta beste Miel Anjel bat, *Txurdanekoa*.

Mutiltzen esan dut baina egia esan mutikotzen besterik ez ginen ari. Zenbat urte izanen genituen bada? Zenbat? sei? zazpi? Ez gehiago. Eta orduan ere *Arotzan* Mieli ikasi nizekion hitz eder hauek: *Birue*, *Kime*, *Izpie*. (Birua, Kima eta Izpia, batuan) Eta badakit gainera non zen. Behar bada, ez hiru hitzak baina horietako bat behintzat plazapeko askan zalakan genbiltzala ikasi nion. *Kime* zen hitz hori eta behorren bat edo azaldu zenean edatera atera zen hizpidera.

OHARRAK ETA HIZTEGITXOA

-BIRUA/PIRUA: BELAR...BIRUA; Haria, hebra, eta baita kable baten haria ere.

-KIMAK: Behorren lepoko kalpar luzeak. Guk pertsonendako ibiltzen dugunean, erdarazko greñaren pare da. Hala ere ez da beti zentzu negatiboan ibiltzen. Adibidez: neskatz'horren kime politte! Eta nik erdaraz mecha esaten dieten horiei ere kime oriak, orailak, beltzak...esanen nieke.

-IZPIA: Belar-izpia eta hari-izpia. Hor bi esanahi. Beste bat, eguzki izpia (rayo de sol) argi izpia. Baina gehiago ere baditu, nahiz berri samarrak izan, zientzian ibiltzen direnak. Hitz zahar hau hara nolako gauzetan erabiltzen den gaur: X izpiak (ixa izpiak) Rayos X

Aipatu ditudan hitz guztiak nekazalgoarekin ikustekoa dutenak dira, baina ez soil-soilik nekazalgoarekin. Behorren *kime* bai, baina jendeen kalpar punta luzeendako ere erabiltzen da, nahiz esanahi hori gerorago ikasi nuen. Beste honenbeste esan dezakegu *biru* eta *izpi* hitzez ere, nekazalgoari lotuak baina ez arrunt, beste esanahi batzuk ere badituzte, mutiltzen ari nintzen artean ikasiz joanen nintzenak.

Umetako oroitzapenak, buruan eta bihotzean gordetakoak.

Miel, muttikoak besterik ez eta mutiltzen ari ginelakoan ardo frexkoa probatu genian plazapeko askan norbaitek freskatzen zeukan botilatik. Badaezpada, ardo frexkoa: *Euskias ai eta ikasi binar*, besteik ez. *Euskia indarrian zioken oaindik Etxalekun! Garai txarragoak ttuk hok! Etorriko al'ttuk hobiak!*

IZPI ULTRAMOREAK: rayos ultravioleta

ALFA IZPIAK: rayos alfa

GAMMA IZPIAK: rayos gamma.

Ez harritu norbaitek *ixa izpietatik pasatu ninduten* esaten badizu. Medikuren baten eskuetatik pasa den seinale.

BESTE HITZ BATZUK

-ZALAKA ETA ZALAKATU. Azkuek ez dakar baina alderdi honetan oso-oso arrunta da. Gure alderdian, bai gorago eta bai hegoalderago ere. Eta erdaraz ere askotan entzuna: Zalaquear, zalacas...

-HIZPIDE: conversacion.

ARITZ BEGINO, AUZAKO PILOTARI PROFESIONAL OHIA

“Pilotarekiko galdutako ilusioa bueltatzen ari zait”

2015eko amaieran utzi zuen pilota profesionala. 14 urtez egon da maila gorenean, Larraintzarren hasi eta lehen mailako txapel bat irabazteraino momentu politak utzi dizkio garai honek. Oraindik ere ez du pilota guztiz utzi, nahiz eta nekazaritzan ogibidea lortu nahian dabilen. Berarekin ibilbide osoa gogoratu dugu.

Noiz hasi zinen pilotan jokatzeko?

10 urterekin edo hasi nintzen Larraintzarren. Larraintzarko pilota eskolarekin herrien arteko txapelketak jokatzeko hasi nintzen. Ia ez zegoen pilota eskolarik, eta kanpora asko ateratzen ginen. Irurtzango pilota eskolak haiekin joateko esan zidan. Orduan, 12 urterekin serio jokatzeko hasi nintzen.

Noiz egin zenuen profesionaletarako jauzia?

16 urterekin hasi nintzen nabarmentzen joko aldetik. Lan egiten ere hasi nintzen Orgi basoan, eta Asegarreko Salva Bergararen deia jaso nuenean, guztiz aldatu zitzaidan dena. Haiekin entrenatzen hasteko esan zidan. Inoiz ez nuen imajinatu profesionalki jokatu ahalko nukeenik.

Profesional izandako askorekin jokatu izanen zenuen afizionatu mailan ezta?

Profesional izan ziren askorekin jokatu nuen: Juantxo Apezetxea, Chafee, Aimar Olaizola, Ekaitz Saralegi, Abel Barriola... Hauek ziren gehien nabarmentzen zirenak garai hartan, belaunaldi berekoak gara.

2001ean debuta izan zenuen, Larraintzarren gainera.

Bai, pilotari baten debuta bere zonaldean egitea nahi izaten dute enpresek, eta beraz polita izan zen hemen debutatzea.

Julian Lajoson ondoren ez da pilotari profesionalik

izan Ultzaman zu iritsi arte.

Bai, uste dut ez dela beste inor izan tartean. Uste dut ilusioz hartzen dela pilotari profesional bat izatea zonaldean. Horren lekuko Lajoson omenez egiten den pilota txapelketa, eta niri ere eman didaten babesa.

Gogoratzen duzu zure debutaren partida?

Bai, atzo izan balitz bezala oroitzen dut. Olaizola I.a eta biok, Esain eta Otxandorenaren aurka jokatu genuen. Frontoia beteta, eta 22 eta 17 irabazi genuen.

Eta hamar urte geroago binakako txapelketa irabazi zenuen.

Bai, 2011n. Maila gorenera iristea kosta egin zitzaidan. Bigarren mailan bi txapel irabazi nituen, Mendizabalekin bat eta Arretxerekin bestea. Lehenengo sei urteetan zaila zen Asegarreko atzelarien artean lekutxo bat egitea, oso onak ziren denak.

Azkenaldiko atzelarien artean, zu izan zara pilotari indar gehiago ematen ziona. Nondik dator indar hori?

Bai, kolpe horri esker nabarmendu izan naiz. Ez naiz pilotari teknikoa izan, baina gaur egun teknikoki oso ona izan beharra dago, kolpearekin ez dago diferentzia markatzerik.

Azken urteak ez dira hain zoriontsuak izan, bereziki enpresarekin izandako eztabaidekin ezta?

Ilusioa galdu nuen azken urtean. Asegarek oso trataera txarra izan du niregana. Lotsagarria zen azken urteotako kontratua, eta pilota profesionala uztera bultzatu nau enpresaren jarrera horrek. Orain ere finikitoaren kontuekin liskarrak ditugu, beste hainbat pilotarik izan duten moduan. Ilusioa galduta kirol maila ere galdu nuen, baina etorkizunean pentsatzen hasi behar nuen, profesionaltasuna amaitzeaz zegoen eta.

Eta aurrerantzean, nekazari lanaz gain, Garfe pilota enpresarekin jarraituko duzu.

Ez nuen pentsatuta jarraitzea, baina probatzea erabaki nuen. Urtarrilean hasi naiz jokatzeko, eta ez du zerikusirik profesional munduarekin, giro hobea dago, eta egia esan pilotarekiko ilusioa bueltatu zait.

Herri kiroleko probak, otsailean

Urtero-urtero antolatzen dira, eta askotan parte hartu dute gure gazteek bertan. Aurten hala izango da eta hurrengo bi hilabeteetan jokatuko dira. Datak zehaztuta daude, lekuak oraindik ez.



Gure eskualdean jendeak betidanik maite izan du herri kirolean jostaketan aritzea. Jostatzen gehienetan eta, behar denean, jokatzeko ere. Gazteen arteko Nafarroako Kirol Txapelketa talde desberdinak batzen ditu 5 egunetan norgehiagokan. Aurten Ultzamako gaztetxoak prestaketa lanak egingen ari dira txapelketara begira. Asier Uriarte kirol teknikariak erran zigunez, patioan dabilta egunero sokatira Txomin Martureten laguntzarekin. Ostiralean, eskualdekoak ez diren beste bi lagunekin batera zortzi pertsonako sokatira taldea osatzen dute.

Tiraka egoteaz gain, herri-kirolarien lanak ohikoak izanen dira: lokotxak, txingak, zaku lasterketak, lasterketa normala, arpana... Txingetan 20 metroko ibilbidea birritan egin behar, hiru zakularik zirkuitu bati beste bi buelta ... Bi txapelketa mota daude: alde batetik proba guzti hauek nahasirik eta bestetik sokatira bakarrik. Aurten kadete kategorian bietan izena ematea espero dute, besteak beste, beste batzuetan bezala sokatira pobre gera ez dadin.

Otsailaren 4an elkartu ziren bilera batean lekuak aukeratzeko, baina albiste hau lehenago idatzi zen. Bilera horretan, lekua proposatzeko aukera izateko bertan egon beharra azaldu zigen Uriartek. Horretaz gain, kirol teknikariak azpimarratu zigen saiatuko zirela ultzamako frontoira halako proba bat ekartzen: “Beste batzuetan izan ditugu halakoak, eta duela hiru bat urte finala ere izan genuen. Espero dugu aurten bat egin ahal izatea”. Datak zehazturik, probak goizeko hamaiketan izango direla ere ziurtatzen ahal da.

Partaideak DBHko lehenengo hiru mailetakoko ikasleak dira, neska eta mutilak, herri-kirolean ez baita sexu bereizketarik egiten: “Garrantzitsua iruditzen zaigu hala izatea”, dio Asierrek. Hiru kategoriatan desberdin egon da: 11-12 infantilak, 13-14 urteko kimuak eta 15 urteko kadeteak. Beste urteetan talde infantila sortzea ohikoagoa bazen, aurten kadete taldea sortu da, baina infantilik ez. Bukatzeko, Asierrek gogorarazi digu Kirol Federazioak autobusa jartzen duela partaide eta monitoreendako, beste herrietara joateko.

DATAK:

OTSAILAREN 21 ETA 28A ETA MARTXOAREN 6 ETA 13AN. FINALA MARTXOAREN 20AN, IZANEN DA.

PALETA GOMA ETA FRONTENIS TXAPELKETA



Langile berriekin hizketan

Gure lau protagonista hauei azken hilabetetan lan mundua aldatu zaie. Gure bailaretako udaletxeetan ikusiko ditugu hemendik aurrera bertara hurbiltzen garen gehienetan.



Amaiur Elizalde, Ultzanuetako Mankomunitatekoa

Txantrear honentzat lehenengo asteak izaten ari dira Ultzanueta mankomunitatean. Ultzama, Anue eta Odietako bailaretako ura kudeatzeko obrak egin dira eta orain martxan jarri dira. Berez, Amaiurrek Erripan lan egiten du, udaletxean eta urte beterako kontratua egin diote. Bere lana, orokorrean, sortu berri den mankomunitatea antolatzea eta kudeatzea da: datu-basea antolatu, helbideratzeen datuak basera sartu, kontratuak gainbegiratu... Aurreko hilabetean iragarri genuen Pulunpen mankomunitate honen lanaren hasiera: Amaiurri aipatu genion jende askok oraindik ez dakielako zer den "Ultzanueta" eta gogorarazi zigun duela gutxi esku-orri bat banatu zuela etxetik etxe.



Lur Larraza, Ultzamako Komunikaziokoa

Ultzamako udalaren helburu nagusietako bat da pausoak ematea herritarrekin harremana "ahalik eta hurbilena" izan dadin, informazioa garaiz eta argi helaraziz eta komunikazio bideak irekiz. "Informazio eta komunikazio programa berriak sortu eta daudenak garatzea" izango dira Etxarriar honen lanaren helburuak: Udalaren hilabetekaria egitea, sare sozial eta webguneak kudeatzea... orokorrean, hilabetekarian aipatu duten bezala "udalaren komunikazio beharrak betetzea". Irratian egin zigun bisitan "oso gustura, gogoz" dagoela esan zigun, "gauzak egiteko eta ideia berrien bidez informazioa" nola zabaltzea daitekeen probatzeko zain. Lurrek soinu eta irudi ikasketak gauzatu ditu eta geroago zine eta argazkilaritzaren munduan lanean ibili da. Bitxikeria gisa, Ultzamako "La Betty Travan" taldean abeslari ibili zen duela urtetxo batzuk.



Ion Etxekolonea, Ultzamako Zerbitzu Anitzekoa

“Ongi, oso ongi, elegante”, sentitzen dela esan digu Ionek galdetu diogunean zer moduz dabil lan berrian. Doneztebear hau, lanean hilabete eskas barama ere, hemendik hona ibili da epaitzekin lanean, zuhaitzak markatzen... "ingurua ezagutzen aritu naiz, oso handia baita". Lan prozesua luzea egin zitzaion: abuztuan buletinean jarri eta ikasten hasi, euskara proba, teorikoa eta praktikoa gainditu eta elkarriketan denak berdina ateratzen ere, 42 lagunetatik bera izan zen aukeratutakoa. Egunero herritik etorri eta joan; baina, "arazorik ez". Bitxikeria gisa komentatzen digu sumatzen dela Doneztebetik Ultzamara bost bat graduko tenperatura aldaketa hotzagoa dela gurean.

PELLO OSINAGA SALA, IHABENGO EGUZKIALDEKOA

“Oso gaztetatik bilatu behar izan nuen lana eraikuntzan”

Kamioi gidari ibili zara denbora gehien, noiztik?

Aita gazte hil zen, hamar urte nituela, eta Ihabenera etorri eta 5 urtera. Beraz, oso gaztetatik bilatu behar izan nuen lana eraikuntzan, 13 urterekin hasi nintzen. Gero Frantziara joan behar izan nuen, eta ondoren kamioiarekin hasi. 30 urte inguru eman ditut horretan.

Garai hartan ongi zegoen garraioaren sektorea?

Garai onak eta txarrak ezagutu ditugu. Oso onak eta oso txarrak. Inasa enpresan Zaragozara bidaiak egiten nituen, eta ematen zuen lan horrek iraunen zuela. Gero bitan banatu zuten enpresa eta azken hamar urtetan lan kopurua jaitsiz joan da. Enpresak galerak zituela eta lan gutxiago eman eta gutxiago ordaindu nahi ziguten.

Duela gutxi itxi zuten Inasa, orduan galdu zenuen lana?

Ez, ni lehenago joan nintzen. Enpresaren itxiera azken kolpea izan da, baina esan bezala, azken hamar urteetan jendea kaleratzen hasi ziren. Nik orduan ikusi nuen ez nuela etorkizunik kamioi gidari gisa, eta zaila zen lana aurkitzea 50 urtetik gorako adinarekin.

Azkenaldian taxilari lanak egin dituzu.

Bi-hiru urtez ibili naiz horretan. Ez nintzen horre-

kin aberastuko, baina aurreko lana utzita, honekin aukera nuen erretiroa hartu arte zerbait egiteko. Hala ere, Iruñeko taxilari bati egokitu zitzaion Basaburuko Udaleko lehiaketa eta orain soilik Ihabendik Irurtzunerako bidaiak egiten dut, herriko bi gazte eramanez. Baina gastu handia du auto handi horrek, dirua ere galtzen dut ia.

Koinatuaren Lakita enpresan ere egiten duzu zerbait, ezta?

Bai, taxia baino ez nuela ikusita, koinatuaren enpresarendako bidaiatxoak egiten hasi nintzen. Furgonetak tailerrera eraman, garraio batzuk egin, materialaren bila joan eta abar. Ez da egonkorra, baina erretiroa hartu bitartean ongi dago.

Eta erretiroa hartuta, zer asmo?

Zaldiak eta behorrak ditut Ihabenen. Baratzea, oi-loak eta ahuntzak ere bai. Honek ere ez dit dirurik ematen, baina gustura nabil ganadu artean. Ganaduaren nabea handitu dugu orain, eta semeak ere asmoa du honekin jarraitzeko. Kamioi garraioa utzi ondoren, han eta hemen lana bilatu izanari esker pentsio duina geratu zait, eta beraz, ez nago hain egoera larrian.



Nekazaritzaren biziraupenerako, ohitura berriak

Enpresa multinazional handien esku ari da geratzen elikaduraren merkatua. Produktuen prezioaren jaitsiera, transgenikoen sarrera, nekazaritza esplotazio erraldoiak, ongari kimikoak, lurzorua hondatzea...



Nekazaritza, eta baratzeke zein zelaietako produktuak gertuko kontsumora bideratu beharrean, merkatu liberalizatu erraldora bideratzeko joera dute enpresa handiek eta estatuek. Dena den, saiakera ugari daude produktua gertukoa izan dadin, guk ekoiztua edo ondokoek kalitate altuan ekoiztutakoa. Bi adibide dakartzagu hona, nekazaritzaren etorkizuneko balio dezaten, sektoreak aurrera egin dezan eta ahora eramaten dugun produktua ahalik eta onena izan dadin.

LURZORUAREN GARRANTZIA NEKAZARITZA EKOLOGIKOAN
Joan zen hilabeteen Arrea Agroekologia Elkarteko Isabelek hitzaldia eman zuen Larraintzarko Bentan lurzorua erabileraren garrantziaz. Hainbat galdera egin genizkion, hona hemen galdera-erantzunak:

Zein da nekazaritza ekologikoaren garrantzia zuendako?

Agroekologiaren filosofia nekazaritza ekologikoko aspektu teknikoetatik harago doa, garrantzia handia duten zenbait gauza daude: tokiko produktuak, osasuna eta produktuen kalitatea, autonomia, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, sustengarritasuna, elikadura burujabetza...

Eta lurzorua zein garrantzia dauka guzti honetan?

Oinarria da lurzorua. Askotan ez dugu pentsatzen zer dagoen lurzorua barnean, eta bizitza handia dago, organismo asko. Mantendu egin behar dira lurzoruan oreka bat mantentzeko, eta ez hil, ongari kimikoekin egiten den bezala, kaltegarriak zein onuragarriak diren organismoak hiltzen baititugu honela. Lurra desorekatzea lortzen dugu honela, eta arazo gehiago izanen ditugu, eta jaten duguna ez da oso osasuntsua

Zein da alternatiba?

Naturara ahalik eta gehien gerturatzea. Hau da, bioaniztasuna mantentzea; lurzoruan ditugun organismoak mantendu behar dira materia organikoa gehituz edo txandakatzeak eginez produktuen artean. Zenbat eta landare gehiago jarri hobe, oreka mantentzen delako.

Bi adibide:

- Izurriteak ekiditeko, baratzean loreak jarri intsektuak gerturatu eta barazkietatik aldentzeko.
- Txandatzekak edo elkarketak. Adibidez, tipula edo porrua azenarioarekin nahastu baratzean. Tipulak eta porruak azenarioa erasotzen duen eulia uxatu egiten duelako.

NEKAZARITZAKO TRESNAK ELKARBANATU

Ipar Euskal Herritik datorkigun adibidea da hau. Aspaldi sortu zuten Elgarrekin NMEK (Nekazaritzako Makinen Erabilerarako Kooperatiba) Lapurdin.

Norberak bere tresnak izatera ohituak gaude, baina pentsatu al dugu zein onura ekarriko lukeen beste nekazari batzuekin elkartu eta hainbat gauza elkarbanatzea?

Makea eta Lekornen, nekazariak modu kolektiboan elkarbanatzen dute lanerako beharrezko duten tresneria. Horrela, ekonomikoki asko errazten zaie laborariei lanabesak erostea, ez baitio gastuari bakarrik aurre egin behar.

Zonaldeka banatzen dira kooperatibak, eta beharren arabera materiala izaten dute. Elgarrekin NMEKn erosten den edo urtean zehar erabiliko den tresna bakoitzeko ez dute kide guztiek diru zati bat jarri behar izaten; laborari bakoitzak erabakitzen du zein material behar duen eta erabileraren arabera antolatzen dute ordainketa. Urtean kuota bat izaten dute aukeratutako makina bakoitzeko, eta ondoren langileak erabilera-orduen arabera ordaintzen du.

Alokairu soziala Muskitzen

Muskizko Itxasoenea etxearen zaharberritzea amaiera fasean dago jada. Hiru solairu, hiru erabilera ezberdin, eta azpimarratzekoa da hiru etxebizitza berri izanen dituela erdiko solairuan. Muskizko kontzejuak eta Imozko udalak elkarlanean, alokairu soziala sustatuko dute.



Muskizko kontzejuarena zen etxea, baina Imozko udalak bere gain hartuko du zaharberritzearen kostua. Jarritako dirua berreskuratuko arte Imozko udalarena izanen da etxea, eta behin berreskuratuta, Muskizko kontzejuaren jabetzara pasako da berriz. Honela, kontzejuak bakarrik egin ezin zuen proiektua egia bihurtu dute.

Itxasoenea, erabilera anitzeko etxea

Muskizko elkarte berriak Itxasoenean izanen du egoitza, beheko solairuan. Ia amaituta dago jada, eta herriko 30 biztanle inguruk izanen dute elkar-gunea. Bigarren solairuan etxebizitzak daude, hiru; erabat berriak eta etxe zaharraren hainbat zutabe eta detailetxoren bat mantentzen dutenak. Ganbara, azkenik, erakusketa eta lantoki gisa erabiliko da.

Udalak eta kontzejuak zonaldeko biztanleei alokairu sozialerako aukera eman nahi diete. Helburua da zonaldeko jendea Muskizko etxe hauetara joatea. Gainera, ohi baino alokairu merkeagoa izanen dute diru-sarrera gutxi dutenek.

Joxean Iturralde, Imozko alkatea:

“Hasieran errefuxiatuendako gorde behar genuen etxebizitzaren bat, baina ikusita blokeo bat egon-

da iristen ez direla, zonaldeko jendeari eskaintzea erabaki dugu. Errefuxiatuak hartzeko beharra izanez gero, beste etxebizitza bat emanen zaie.”

“Alokairu normal bat ordaindu ezin dutenendako pentsatuta dago egitasmo hau, haiei ere etxebizitza baten aukera emateko. Muskitzen hasi dugu hau, baina beste herrietara zabaltzeko helburua dugu, kontzeju eta udalaren elkarlana eredu hartuta.”

Alfredo Sarasa, Muskizko alkatea:

“Helburuetako bat etxebizitzaren espekulazioa galaraztea da. Udalak jarritako dirua jasoko du, eta gero kontzejura itzuliko da jabetza.”
“Ia lan guztia, bailarako biztanle langabetuen bidez egin da. Proiektua 2012an hasi zen, eta lanerako hiru deialdi egin dira bailarako jendearendako. Etxearen zaharberritze lanaren %80 hemengo langabetuek egin dute.”

Martxoaren 5ean jardunaldi irekiak

Informazioa egun horretan Muskitzen edo edozein egunetan Imozko udaletxean izanen duzue. Hona hemen hainbat datu:

DATUAK:

Etxebizitza	zabalera	Alokairu soziala	Alokairu normala
1. ezkerria	68,99m ²	214,99€/hilabetean	350€/hilabetean
1. erdia	51,90m ²	161,73€/hilabetean	240€/hilabetean
1. eskuina	68,50m ²	213,46€/hilabetean	350€/hilabetean

ETXEBIZITZA ESKURATZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK:

- Imozko bailaran erroldatua egotea 7,5 puntu (+ puntu 1 urte bakoitzeko (15 puntu gehienez))
- Seme-alabak izatea: 1=4 puntu, 2=5 puntu, 3=7 puntu... (erdiko etxebizitzan ez da puntuatuko)
- 36 urtez behera izatea: 5 puntu
- Beste etxebizitzarik jabetzan ez izatea: 10 puntu

Familia unitateko kideak BALDINTZAK	Diru-sarrera osotara
1	11.165,40€/urtean
2	14.804,53€/urtean
3	15.862,00€/urtean



2015eko **ABENDUA** Gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

JAIOZAK:

ULTZAMA

/RAIZOTZ

-Manex Olasagasti Arangoa, Alfredo Arangoa eta Miren Olasagastiren semea, 2015eko abenduaren 18an jaioa.

-Unax Garcia Rekalde, Miguel eta Beatrizen semea, 2015eko abenduaren 28an jaioa.

ZORIONAK JAIOPERRIEN GURASOEI!

EZKONTZAK:

IMOTZ

ETXALEKU

Pablo Zarageta Larunbe, Etxalekuko *Etxandikoa*, eta Maite Lopez Cerrero, Iruñekoa.

Ezkontza: 2015eko abenduaren 27an.

ZORIONAK, ETA URTE ASKOZ!

HERIOTZAK

ULTZAMA

Eltzaburu

-Clemente Larraiotz Etxarri, *Iturraldeko* nagusia, 2015eko abenduaren 10ean hil zen.

-Eugenia Etxeberria Orkin, *Paskualeneko*, 2015eko abenduaren 27an hil zen, Gerendiaingo xahartegian.

LIZASO

Maria Isabel Elizondo Beruete, *Mandaxeneko* etxeakoandrea zaharra, abenduaren 11n hil zen.

GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE



Manex aitatzoren besoetan



Clemente Larraiotz



Isabel Elizondo



Maria Eugenia Etxeberria

Kattagorri **lodiak** “Umearen” erruz?

Aldaketa klimatikoaren abiadura handituz doa, baita eskualdean ere



Urte berri eta eguberrien ondoren, ohikoa da lagun edo familiakoren bat, edota baita zu ere, proiektu eta asmo berriekin hastea: erretzeari uztea, kirol gehiago egitea, liburu gehiago irakurtzea... Tira, argazki hau ikusten baduzu baliteke hobe sentiaraztea.

Argazkiko kattagorria ez da hemengoa, baina izan liteke: animalia hauek ez dute hibernatzen eta horregatik ahal duten guztia jaten dute bazka duten artean. Eta zer gertatzen da bazka ez bada bukatzen? Aurten gertatu dena, lodi-lodi jartzen direla. 2015. urtea historiako beroena izan da, 2014. urtea historiako beroena izan zen eta 2013. urtea 1850etik seigarren urterik beroena izan zen.

Gurera begira jarrita, udazkena epela izan da oso eta horrek zenbait ondorio ekarri ditu. Zizen denboraldia luzatu egin da (artikulu hau idazteko orduan urtarilaren erdialdean, oraindik zizaren bat aurkitu ahal zen gure basoetan). Eguraldi beroa dela-eta, zuhaitzek ez dituzte hostoak galtzen eta lurzorua tenperatura babesten dute izotzetik. Urteko lehen elurak urtarilean erori dira gurean. Beste askotan azaro erdialdean hasi zen elurra botatzen. Halere, “askotan halakoak gertatu izan dira” esaten digu Basaburuko basozainak.

Badago beste zenbait datu kezagarri: alde batek prozesionariak ugaritu dira aurten. Hotzak hiltzen ditueneg, negu gorriak, haren txakurrak askatzen ditueneg, har hauek akabatzen ditu. Aurtengo epeltasuna dela-eta, asko ugaritu dira pinudietan. Gure eskualdean pinu gehiegi ez badago ere, Xulapain edo Iruztun aldeko pinudiak animalia hauen habiez gainezka daude. Basozainak komentatu digu hasi dela pinuak “gorri” ikusten, prozesionariak hosto guztiak jan dituzten seinale. Kontu “ziklikoa” dela esan digu Xabik, “populazioa gehiegi hazten bada, bazka gutxiago aurkitzen dute eta gehiago hiltzen dira”, natu-

raren orekaren isla. Muxarrei buruz hitz egin genuen lehengo batean, aurten “ezkur urte” izan baita.

Planeta, urtez urte berotzen

Europa eta Amerikan kattagorriak loditzen ari diren errudun “Umea” edo “El Niño” efektu klimatikoa dela diote adituek. Klimaren alterazioa da “Umea” eta abendua eta martxoa artean gertatzen da. Oso hezeak diren inguruak, Indonesia kasu, lehor izatera igarotzen dira eta normalean lehorra den Hego Amerikako mendebaldeko kostan prezipitazio ugari gertatzen dira. Izen bitxi hau duela mende batzuk jarri zioten itsasgizon peruarrek, abendu amaieran hasten zenez, *El Niño de Dios*-en etorrera iragaritzen baitzuen.



Urtarrileko Margaritak Basaburuan

Gurean oraindik egoera larria ez dela badirudi ere, kanpora begira jartzen bagara, neurriak hartzen hasi beharko ginateke. Munduko hiriburu gehienak poluzio arazo handiak dituzte. “Albiste txarrak dira planetarentzat”, iragarri zuten Munduko Meteorologia Erakundeek, eta gu, nik dakidala, planeta berean bizi gara, nahiz eta batzuetan beste batean bizi garelako pentsatu.



ZORIONAK ZUEI!



Fermin



Ugaitz eta Enare



BROWN, MIGEL ETA IRENE



MAIDER



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835 Lizaso karikolaregoitz@gmail.com

¿CREES QUE LLEGARÁN SOLOS
A RECICLARSE? PONLE CABEZA
ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN
KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA
RECICLA TUS RAE* BIRZIKLATU ZURE TEEHak*



Entrega tu viejo aparato en la tienda donde compres el nuevo, o usa los servicios de tu mancomunidad: el servicio de recogida de voluminosos (Tel. 948 302 898) o los puntos limpios móviles y fijos. Consulta en tu mancomunidad

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina handikoen bilketa zerbitzua (Tel. 948 302 898) edo garbigune mugikorak eta finkoak. Galdetu zure mankomunitatean

*Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos. / *Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

948 423 242 / www.mcp.es

Instalaciones Solares Térmicas
Instalaciones Solares Fotovoltaicas
Calderas y Estufas de Biomasa
Ahorro y Eficiencia Energética



Eguzki-instalazio termikoak
Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 tedesna@tedesna.com www.tedesna.com



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

Sateliteari esker, internetera
konektatu zaitez



Senatel
Telecomunicaciones
848 410 500
Sta. Vicenta María 14 31012
IRUÑA
info@senatel.es



Internet donde
no llega nadie

